

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3911

591/2023 EBAZPENA, uztailaren 19koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratu egiten den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorreko 2023ko martxoko zikloaren destinoen eskaintza, D3 Teknikari Laguntzaile Profesionalen lanbide-taldeko Instalazioen Mantentze Lanetako Ofiziala kategoriarako / lanpostu funtzionalerako.

Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, Osakidetza Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren.

Aipatutako erabakiaren azken xedapenetako bigarrenak ezartzen duenez, erabakia garatzeko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiarik eskumena ematen zaio beharrezko ebazpen edo instrukzioak eman ditzan, erabakia egoki eta zuzen aplikatu dadin Ente Publikoaren zerbitzu-erakunde guztietan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1314/2021 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorrerako deialdia egin zen D3 Teknikari Laguntzaile Profesionalen lanbide-taldeko kategoriatan/lanpostu funtzional hauetan: Emergentsietako Ibilgailuen gidaria, Garraio Sanitarioaren gidaria, Zerbitzu Orokorretako gidaria, Instalazioen Mantentze Lanetako Ofiziala, Mantentze Lan Elektrikoko Ofiziala, Mantentze Lan Mekanikoko Ofiziala, Berogailuen Mantentze Lanetako Ofiziala – Iturgina, Igeltserotzako Mantentze Lanetako Ofiziala, Pinturako Mantentze Lanetako Ofiziala, Arotzeriako Mantentze Lanetako Ofiziala eta Joskintzako Ofiziala.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 4.2.1 apartatuan xedatutakoari jarraituz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendaritzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratuko du destinoen eskaintza.

Azaldutako guztiaren ondorioz, eta pertsonalaren arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitaratzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorraren 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintza, D3 Teknikari Laguntzaile Profesionalen lanbide-taldeko Instalazioen Mantentze Lanetako Ofiziala kategoriarako / lanpostu funtzionalerako, ebazpen honekin batera doan eranskinaren bidez.

Ebazpen honen bidez egiten den deialdiaren zikloan, data hauek hartu dira erreferentziaz: 2023ko martxoaren 1a, eskainiko diren lanpostuak hautatzeko, eta 2023ko irailaren 4a, eskakizunak betetzeko, merezimenduak alegatu eta baloratzeko, eta destinoa aukeratu edo aldatzeko.

2023ko abuztuaren 11, ostirala

Lehiakideek eskabidea aldatu ahalko dute, baita destinoen aukeraketa ere, 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren oinarrietan eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1314/2021 Ebazpenean araututakoari jarraiki, 2023ko irailaren 4ra arte, 2023ko martxoko ziklo honi dagokionez.

Destinoen aukeraketa aldatzeko, Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorrean parte hartu ahal izateko gaitu den aplikazio informatikoa erabiliko da, eta ez da inolako dokumentaziorik aurkeztu behar.

2023ko martxoko ziklo honetan, 2023ko irailaren 4ra arte egindako destino-aukeraketa hartuko da kontuan, aldeztu aurretik adierazitakoaren arabera.

2023ko martxoko ziklo honetan, prozesu orokorrean egindako eskabideak jasoko dira, baldin eta gutxienez zikloan eskainitako destinoen bat badute 2023ko irailaren 4a amaitzen denean.

Bigarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutu sozialak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAr argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 19a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA.

2023ko abuztuaren 11, ostirala

ERANSKINA

DESTINOEN ZERRENDA

KATEGORIA: INSTALAZIOEN MANTENTZE LANETAKO OFIZIALA

LANPOSTU FUNTZIONALA: INSTALAZIOEN MANTENTZE LANETAKO OFIZIALA

Destino kop.	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa
1	Arab. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Egitura orokorrak / Arabako Ospitale Psikiatrikoa-Vitoria-Gasteiz / Mantentze-lanak-Mantentze-lanak-Mantentze-lanetako ofiziala / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Arabako ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Kanpo Kontsult Eraik, Vitoria-Vitoria-Gasteiz / Mantentze-lanak-Mantentze-lanak-Mantentze-lanetako ofiziala / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin / 2HE-Data igarota
2	Arabako ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Kanpo Kontsult Eraik, Vitoria-Vitoria-Gasteiz / Mantentze-lanak-Mantentze-lanak-Mantentze-lanetako ofiziala / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
3	Arabako ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Kanpo Kontsult Eraik, Vitoria-Vitoria-Gasteiz / Mantentze-lanak-Mantentze-lanak-Mantentze-lanetako ofiziala / Txandakakoa, 3 Txandatan-Txandakakoa, 3 txandatan-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Bizk. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Egitura orokorrak / Zaldibarko Ospitalea-Zaldibar / Mantentze-lanak-Mantentze-lanak-Mantentze-lanetako ofiziala / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Guardiekin/Asteburuekin edota jaiegunekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Debagoieneko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Debagoieneko Ospitalea-Arrasate/Mondragón / Mantentze-lanak-Mantentze-lanak-Mantentze-lanetako ofiziala / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Guardiekin / 2HE-Data igarota
2	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Mantentze-lanak-Mantentze-lanak-Elektritzitatea / Txandakakoa, 3 Txandatan-Txandakakoa, 3 txandatan-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Mantentze-lanak-Mantentze-lanak-lturgintza - Berogailua / Txandakakoa, 3 Txandatan-Txandakakoa, 3 txandatan-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Goierri-Urola Garaiko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Zumarragako Ospitalea-Zumarraga / Mantentze-lanak-Mantentze-lanak-Mantentze-lanetako ofiziala / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Data igarota
1	Goierri-Urola Garaiko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Zumarragako Ospitalea-Zumarraga / Mantentze-lanak-Mantentze-lanak-Mantentze-lanetako ofiziala / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Gorlizko Ospitalea	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Gorlizko Ospitalea-Gorliz / Mantentze-lanak-Mantentze-lanak-Mantentze-lanetako ofiziala / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Data igarota
1	Santa Marina Ospitalea	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Santa Marina Ospitalea-Bilbao / Mantentze-lanak-Mantentze-lanak-Mantentze-lanetako ofiziala / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe